

## MUSIKAREN ERRITMORA EMOZIOAK MARGOTZEN

### 1.- Deskribapena

Musika-pieza batek sorrarazten dituen sentimenduak margotzean datza.

### 2.- Helburuak

- Hitzik gabeko komunikazioa lantzea.
- Pinturaren bidez emozioak adieraztea.
- Sormen grafiko-figuratiboa bultzatzea.

### 3.- Partaideak

5 urtetik aurrera.

### 4.- Materiala

Kartoi meheak edo estraza-paper zati handi bat, behatz-pintura, argizarizko margoak, errotuladoreak, musika-pieza bat duen CD bat.

### 5.- Abiapuntuko arauak

Estraza-papera edo kartoi meheak lurrian jarriko dira, leku zabal batean.

### 6.- Garapena

Musika-pieza jarriko dugu, eta hurrei musika horrek sorrarazten dizkien sentimenduak marrazteko esango diegu. Adibidez, musikak tristura eragiten badie, kolore ilunak erabil ditzakete, eta poza eragiten badie, kolore argiak. Jarraian, haur bakoitzak musikak eragindako sentimenduen marrazkiak erakutsiko ditu.

### 7.- Ebaluazioa

Entzun dugun musika-pieza gustatu al zaizue? Ongi pasatu al duzue musikak eragindako sentimenduak margotzen? Marrazkiak gustatu al zaizkizue? Nolako sentimenduak sorrarazi ditu musikak? Hatzekin margotzea gustatu al zaizue? Zaila iruditu al zaizue?

### 8.-Iturria

Garaigordobil, M. *Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años*. Ed: Pirámide.